

FITXA: 244 - BIZKAIA - Foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, 2025/2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzat.

Nori zuzendua:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak eta euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta kirol klubak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoak edo udal fundazio publikoak ere, baldin eta 2025/2026 denboraldian Bizkaian honako jarduera hauetakoren batean parte hartu badute: ikus 2.1.a) oinarria.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak edo euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak eta/edo klubak ere, baldin eta Araba edo Gipuzkoako eskolako kiroleko jardueretan parte hartzen badute eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailaren baimena badute. Entitate onuradunak izango dira, baldin eta eskola kirolaren programetan barne hartutako lehiaketako jardueraren batean parte hartu badute, hurrenez hurren, Araba edo Gipuzkoako foru aldundietan.

Deialdia: BAO - Bizkaiko Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/06/08
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2026 FORU DEKRETUA, ekainaren 4koa. -

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/06/08/I-624_eus.pdf

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola

Zenbatekoa: 572.699,70 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/06/09

Aurkezteko azken eguna: 2026/06/23

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Hainbanaketa

Laburpena

Foru dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezakete jarduera hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 5eko 55/2025 Foru Dekretuaren babespean 2025/2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzeak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Foru dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezakete jarduera hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 5eko 55/2025 Foru Dekretuaren babespean 2025/2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzeak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025/2026 denboraldia.